

# ERMUKO PLANOAREN BILAKAERA

XV.mendean hiriko biztanlegoa nahiko sakabanaturik dago, baita ere harresi barruan. Dorretxeak (Santukua, Lobiano eta gaurko Zarra Jauregian zegoena), harresiaren parte izanik, era estrategikoan jarrita zeuden; lehengoa iparraldeko hiriko goikoaldea kontrolatuz eta beste biak mendebaldeko eta ekialdeko atak zainduduz.

Harresetik kanpo beste dorretxe bi egongo ziren, bata Torretakoa eta bestea Arauna Kapitanena.

Harresia ez zen defentsarako soilik, baizik eta batez ere bere biztanleentzako pribilegio esparru juridiko bat seinaltzen zuen.


1.704. urtean, planoaren bilakaera nabaritzen da, harresiak gainditu dira, hauek, zati batzu salbu, desagertuko zi-

relarik. Eraikitako zonalde berri bat aurkitzen dugu: Zubiaurre; etxeak hiriko arteriak markatuz, elkarri atxekitzen dira dagoeneko. Honela Barrenkale, Artekale, Goienkale, Izelaieta eta aipatutako Zubiaurre kalea agertzen dira. Modu berean, XV. mendean eraikitako Santa Ana konbentua, Lobiano eta Zarra jauregiak ere agertzen zaizkigu.


1.910. urtean Ermuak oraindik 871 biztanle ditu, gehiengoa hiri barruan eta gutxi batxu, Elorreta, Abeletxe, Ongarai, Beti-Ondo, Urkokoak eta zaharrena den Espillazpi, baserrietan. Jauregi eta dorretxe guztiak kontserbatzen dira, Valdespinakoa oraindik ere azaltzen ez zaigularik. Udaletxea kokatuko zen beste hirigune bat agertzen da, egungo Plaza (\*) hain zuzen.

Beste zenbait eraikuntza:  
1.854- Hilerria, San Anfoniotik Santa Anara aldatzen da.  
1.884- Izelaietan ikustegi edo labadero publikoa.  
1.893- Argikuntza publikoa, isurbide edo desagüe eraikuntza eta konponketa, kale barrizatzea, etabar...  
1.910- San Pelaioko urontzia edo deposito.


(\*)- 1.794 ean frantsesek egindako erretearen ondorioz.



- IKURRAK.**
- 1- SANTUKUA DORRETXEA.
  - 2- TORRETA ETXEA.
  - 3- DORRETXEA.
  - 4- DORRETXEA.
  - 5- DORRETXEA EDO PALAZIO ZARRA.
  - 6-7- ERROTAK.
  - 8- HILERRIA.



- IKURRAK.**
- 1-SANTUKUA DORRETXEA.
  - 2-TORRETA ETXEA.
  - 3-LOBIANO DORRETXEA (IDIAQUEZ).
  - 4-DORRETXEA (ARAUNA KAPITAINA).
  - 5-SANTA ANA KONBENTUA.
  - 6-LOBIANO JAUREGIA.
  - 7-PALAZIO ZARRA.
  - 8-UDALETXEA. PISU ETA NEURRIAK.



- IKURRAK.**
- 1- SANTUKUA DORRETXEA.
  - 2- TORRETA ETXEA.
  - 3- LOBIANO DORRETXEA.
  - 4- DORRETXEA.
  - 6- KONBENTUA.
  - 7- PALAZIO ZARRA.
  - 8- LOBIANO JAUREGIA.
  - 9- MARQUES DE VALDESPINA JAUREGIA.
  - 10- ZUBIAURREKO ERROTA.
  - 11- EITZAKO ETXEA (EITZAGAETXEBARRIA).
  - 12- UDALETXEA.
  - 13- MERKATUA.
  - (\*) ITURRIAK.

**MENDIOLA JATETXEA**

Erdikokale, 19, Tlf.:943-172243  
48260 ERMUA